

ttüpi-ttapa

1996ko otsailak 22 • 176. zenbakia

Erreportaia

**Sindikatu abertzaleak
nagusitu dira
lantegietako hauteskundeetan**




**BETI GAZTE ETA ARESO
TXAPEL GUZIEN IRABAZLE**

CONVERGENCIA

DEMOCRATAS
DE NAVARRA

**Nafarroa,
zuk erabakitzen duzu
egunez egun**

**Martxoaren 3an
Bozkatu CONVERGENCIA**



Polo

POLO diesel Berria
64 c.v.

...orain Sampi Aragonen

1.656.000 Ptatik. aitzin



Volkswagen

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759

D O N E Z T E B E

TTIPI-TTAPAK etxe guzitara ailegatzeko administrazioaren laguntza behar du

TTIPI-TTAPAREN diru iturriak bi dira: Gobernu eta Udalen laguntza eta publizitatea. Gobernuak eta udal batzuek dirulaguntzak murriztu egin nahi dituzte, eta TTIPI-TTAPARI kobratzeko erraten diote. Bainan, eskola ez da kobratzen, ikastolari laguntzen zaio. Zergatik ez TTIPI-TTAPARI? Ordaindu behar izanez gero, jende askok ez luke TTIPI-TTAPA leitu, eta euskarak, bizitzekotan, TTIPI-TTAPA bezalako dohaineko gauzak behar ditu.

Honen gainean dagoen koardroan ageri da TTIPI-TTAPAREN kontuak nola estali ziren iaz. Ikusiko duzuenaz, erakunde desberdinek eman dizkiguten dirulaguntzek, diru sarreraren %49a osatzen dute, eta kontuak estaltzeko falta den %51a TTIPI-TTAPAK berak sortzen du publizitate eta lan komertzialetatik, batez ere.

Bistakoa da, hortaz, zenbaterainoko garrantzia duen administrazio desberdinetatik eskuratzen ditugun dirulaguntzak urteko aurrekontuan.

Halere, dirulaguntza hoiek murriztuko dizkigutela urteroko mehatxua izaten da garai honetan. Udal batzuek ez dute sosik ematen, eta ematen dutenen artean, batzuk, «kobratzen hasi beharko duzue!» diote. Gure ustez, ordea, pisu haundiagoko arra-

zoiak daude proposamen hori baztertzeko kontutan hartzeko baino.

TTIPI-TTAPA KOBATU? EZ

Ez dugu ahaztu behar euskarara indartzea dela TTIPI-TTAPAREN helburua. Bertze lekutakoak bezala, Baztan, Bortzirietako Euskara Mank., Goizueta, Leitza, Malerreka Zerbitzu Mank., Sara, Urdazubi, Zugarramurdi, 1.500 harpidedun izatetik 6.200 izatera pasatu ga-

ra. Eta hori kontent egoteko motiboa da. Baina ez gaitezten itsutu.

KOBATUKO BALITZ, JENDE GUTIAKOK LEITUKO LUKE

Zoritzarrez, leitzeko ohitura ttikia dugu gehienok, eta ttikiagoa, euskaraz bada. Horregatik, zail egiten zaigu leitzekoa diruz ordaintzea. TTIPI-TTAPA ere ordaindu behar izanez gero, jende askok ez luke hartuko, eta jende horiek guziek, ez lukete euskaraz leitu.

KULTURARI LAGUNDU EGIN BEHAR ZAIO

Gobernuek eta Udalek euskararen aldeko deklarazioak onesten dituzte maiz. Nahiz eta horretan aitzin-pausoak eman, ez dute aunitzek ohitura haundiegirik adierazpen

hauek laguntza ekonomiko bihurtzeko, eta horixe da, beharbada, beren postura sortarazten duen arrazoietakoa bat. Gure ustez, ordea, kulturari lagundu egin behar zaio. Inori ez zaio gogoratu ere egiten, haurren eskola kobratzen hasia, eskola denentzat balioetsua delako. Baita euskarare. Gobernu erdaldunak ere nolabait onartzen du hori. Horregatik laguntzen ditu, sobera ez bada ere, ikastolak eta eskalategiak. Zergatik, orduan, TTIPI-TTAPA kobratu?

Hortaz, aipatu dugun guzi honegatik ez dugu kobratu nahi. Hala ere, Gobernuak eta Udalek laguntza ukatu egiten dutela? Orduan ikusiko dugu. Bainan bakoitzak garbi eduki dezala egiten duenaren arrazoiak eta erantzunikuna.

1995eko DIRULAGUNTZAK

UDALAK	Eskatutakoa	Hartutakoa
Areso	140.655 Pta.	20.000 Pta.
Baztan	3.120.694 Pta.	0 Pta.
Bortzirietako Euskara Mank.	3.589.030 Pta.	3.589.028 Pta.
Goizueta	400.327 Pta.	250.000 Pta.
Leitza	1.324.633 Pta.	900.000 Pta.
Malerrekako Zerbitzu Mank.	2.298.401 Pta.	1.150.000 Pta.
Sara	-	1.000 Libera
Urdazubi	216.393 Pta.	0 Pta.
Zugarramurdi	140.655 Pta.	10.000 Pta.
Nafarroako Gobernua	8.000.000 Pta.	8.000.000 Pta.
Beste dirulaguntzak	-	180.655 Pta.

DATU OROKORRAK

• 1995eko Aurrekontua	28.800.000 Pta.
• Hartutako dirulaguntzak (osotara)	14.124.683 Pta.
• Autofinanziazioa (publizitate, lan komertzialak, ...)	14.675.317 Pta.

SINDIKATU ABERTZALEAK NAGUSITU DIRA

Joan den hilabete bukarera bitarte lantegiz lantegi egin diren hauteskunde sindikalak, indartu egin dute sindikatu abertzaleen nagusigoa. ELA eta LABen artean delegatu guzien %81 biltzen dute eta Estatu Espainiarrean nagusi diren UGT eta CCOO sindikatuak, hemen, langilegoaren %3,7 baino ez dute ordezkatzeko.

TESTUA :

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ORDEZKARITZA SINDIKALAK LANTEGIZ LANTEGI

ARANO	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
GRUPO CRUZCAMPO, S.A.	Edariak	3	3				
BAZTAN	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
ALBATARITZA, S.A.	Bulegoak	1		1			
ALMACO BAZTAN	Eraikuntzak	1		1			
BAZTAN IKASTOLA	Nafar Ikastolak	1		1			
BAZTANGO UDALA	Adm. Lokala	2					(1)2
CANTERAS ACHA, S.A.	Eraikuntzak	1	1				
CIABAR CONSTRUCCIONES	Eraikuntzak	1		1			
CLINICA DEL PILAR	Osasun Pribatua	3	3				
CONST. GOIENETXE, S.A.	Eraikuntzak	1	1				
CONST. IGNACIO TELLETXE	Eraikuntzak	1	1				
CONST. J.B. ITURRIA	Eraikuntzak	1		1			
EMBUTIDOS ESARTE, S.L.	Haragi Industria	1		1			
HNAS. HOSP. DEL S.C.J.	Osasun Pribatua	1	1				
KIWI BAZTAN, S.A.	Nekazaritza	1		1			
LA BAZTANESA, S.A.	Bidaia-arien Garraioa	1		1			
MARMOLES BAZTAN, S.A.	Eraikuntzak	3	2	1			
MARMOLES DE URDAX, S.A.	Eraikuntzak	1	1				
NABERRI, S.A.	Metala	1	1				
PANIFIC. BAZTANESA, S.A.	Okindegia	1		1			
RESIDENCIA FCO. J. IRIARTE	Osasun Pribatua	3	2		1		
S. MARTIN ESKOLA	Irakask. Pribatua	1	1				
BERA	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
ARKAITZA, S.A.	Eraikuntzak	1				1	
ARRAGOBIDE	Merkataritza	1		1			
BEPLAST, S.A.	Industria Kimikoak	1	1				
BERAKO UDALA	Adm. Lokala	1					(2)1

OHARRAK:

- (1) Bi delegatuak AFAPNAkoak dira (Nafarroako Administrazio Publikoko Funtzionarioak)
- (2) Delegatu hau AFAPNA sindikatukoa da (Nafarroako Administrazio Publikoko Funtzionarioak)
- (3) Afiliatu gabeak
- (4) Sei delegatu hauek lau ESK-CUISekoak dira, eta bertze biak 'Confederación de Cuadros'ekoak
- (5) Delegatu hau AFAPNA sindikatukoa da (Nafarroako Administrazio Publikoko Funtzionarioak)

Datu Iturria: LAB

azkeneko urte terdi honetanbarrena burutu da lantegiz lantegi ordezkari sindikalak eta enpresa komiteak auzeratzeko prozesua. Hemendik aitzinera, ordeza, ordezkari sindikalen hautatze prozesua etengabea izanen da eta iraunkorra denboran. Hau da, lantegi bakoitzak bere hautaketak eginen ditu lau urtetik behin tokatzen zaionean.

SINDIKATU ABERTZALEAK NAGUSITU DIRA

Hautatze prozesu honen ondorioz agertu zaigun mapa sindikalak, ELA eta LABen erabateko nagusigoa agertzen digu. Denetara 132 delegatu sindikal aukeratu dira, eta ELA da ordezkari sindikal gehien lortu duen sindikatu, 71 guztira (%54), eta LAB da bigarrena 36 delegature-

Ordezkarik sindikalak eskualdeka




BAZTANALDEA

ELA	14	%51,8
LAB	10	%37,0
Besteak	3	%11,2

BORTZIRIAK

ELA	36	%49,3
LAB	16	%21,9
Besteak	21	%28,8



LEITZALDEA

ELA	14	%56
LAB	10	%40
Besteak	1	%4

MALERREKA

ELA	7	100%
-----	---	------

DATU OROKORRAK

Lantegi kopurua	64
Zentsoa (Bozketa egunean)	2.681 langile
Delegatu sindikalak (osotara)	132
ELA	71 ordezkarik
LAB	36 ordezkarik
Besteak (ESK, AFAPNA, UGT, CCOO...)	25 ordezkarik

kin (%27). Bien artean 107 delegatu dituzte, delegatu guzien %81a. Gainerako ordezkaritza, paretsu banatzen da ESK, AFAPNA, UGT eta CCOOren artean. Salbuespena afiliatu gabeko 9 ordezkaririk dira, 'Alco' lantegikoak.

SEI LANGILE EDO GEHIAGOKO LANTEGIETAN

Legeak onartzen duenez, sei langile edo gehiago dituzten lantegietako langileek beren ordezkarik sindikalak aukeratzeko eskubidea dute. Hori horrela izateak, ordea, ez du erran nahi momentu honetan sei langile edo gehiago duten lantegi guzietan badutenik ordezkarik sindikalik. Zenbaitzutan, nagusien presioengatik, eta beste batzutan, ordezkarik izateko inor ez delako aurkeztu, kontua da badirela zenbait lantegi hauteskunde sindikalak egin ez dituztenak. ■

HEMENDIK
AURRERA
LANTEGI BATEAN
EDO BESTEAN
HAUTAKETA
BERRIAK EGINEN
DIREN NEURRIAN,
ERREPORTAI
HONETAN
BILDUTAKO
DATUEK
BALIOGARRI-
TASUNA GALDUKO
DUTE.

ORDEZKARITZA SINDIKALAK LANTEGIZ LANTEGI

BERA	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
CHANTRE, S.A.	Eraikuntzak	1				1	
COLEGIO SAGRADO CORAZON	Irakask. Pribatua	1	1				
COMPOSITES GUREA, S.A.	Egurra	1	1				
CONSERVAS MARTIKO, S.A.	Haragi Industria	1	1				
EBRO AGRIC. CIA ALIMENT.	Azukrea	1	1				
EMBALAJES BERA, S.L.	Egurra	1	1				
EMBALAJES M. MARTINEZ, S.L.	Egurra	1		1			
ESTACION SERV. URBICAIN	Gasolindegia	1	1				
FUNDICIONES DE BERA, S.A.	Metala	9	7	2			
GURE-PALMA, S.A.	Egurra	1	1				
HORMIGONES ARKAITZA	Merk. Garraioa	1		1			
IRAZOKI UGARTEMENDIA, S.L.	Merkataritza	1	1				
LABIAGA IKASTOLA	Nafar. Ikastolak	1		1			
MANUFACTURAS ALCO, S.A.	Metala	9					(1)9
MOLDES Y RECUBR. LAN	Metala	1	1				
PALMADERA, S.A.	Egurra	1	1				
SAVERA	Metala	5	5				
TALLERES MECAN. ELKAR	Tailerrak Konp.	1		1			
TALLERES ZELAIETA, S.L.	Metala	1		1			
DONEZTEBE	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
APARAN, S.A.	Egurra	1	1				
CONST. INZAKARDI	Eraikuntzak	1	1				
DONEZTEBEKO UDALA	Adm. Lokala	1	1				
CONGELADOS DEL NORTE	Kontserbak	1	1				
VLIESENA IBERICA, S.A.	Beira eta Zeramika	1	1				
ERATSUN	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
MARIEZKURRENA HNOS, S.L.	Bidaia-erien Garraioa	1	1				
GOIZUETA	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
NORDIA EKIPAL, S.A.L.	Egurra	1	1				
IGANTZI	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
A.T.M.	Metala	1	1				
CONST. MECAN. BERRIZAUN	Metala	1	1				
ITUREN	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
CONST. IZARRA, S.A.	Eraikuntzak	1	1				
LEITZA	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
AGROZUMOS, S.A.	Edariak	1	1				
EMBALAJES ERVITI, S.L.	Egurra	1		1			
LEITZAKO UDALA	Adm. Lokala	2		1			1
SARRIOPAPEL, S.A.	Papertegiak	17	9	8			
LESACA	Komenioa	Delegatuak	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA	Hostalaritza	1		1			
C.S.I. TRANSFORMADOS	Metala	23	9	6	2		(4)6
ETXEBESTE HNOS.	Egurra	1	1				
LESAKAKO UDALA	Adm. Lokala	1					(5)1
SAROBÉ HNOS, S.L.	Eraikuntzak	1	1				
TANTIRUMAIRU IKASTOLA	Nafar. Ikastolak	1		1			

EGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.200 ALE

RGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
en. **Publizitatea:** Miren Kar-
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
ozena, Joxemanuel Irigoien.
ministrazioa: Amaia Goia.
redakzio taldea: Pello Ape-
xea, Juainas Paul, Kristina
an, Bittori Telletxea.
riemaileak: Joseba Azpiroz,
eban Arozena, Juana Mari
zar, Ainhoa Mutuberria, Iban
si, Txema Aldabe, Pello Etxe-
Txema Urroz, Patxi Otxan-
ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
ste, Pablo Mendiburu, Joseba
rabide, Alizia Olaizola, Margari
enike, Koro Irazoki, Mixel
rendiain, Jacqueline, Elixabet
ria, Garbiñe Maiz, Oskar
perena, Alberto Sansiñena,
lo Apezetxea, Aitor Arozena,
stina Boan.

laboratzaileak: EHNE Nafa-
a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-
r, Joxe Javier Etcheberria,
ntxa Zabala...

rimategia: Graficas Ona.

ti-ttapak ez du bere gain har-
n derrigorrez, aldizkarian adie-
tako erranen eta eritzien eran-
kizunik.

kunde Laguntzaileak: Bera,
iza, Goizueta, Areso, Baztan,
Jazubi, Zugarramurdi eta
rako udalak, Bortzirietako
skara Mankomunitatea,
errekkako Zerbitzu Mankomu-
tea, Zugarramurdiko Akelarre
arte...

GAURKOTASUNeko GAIA

Euskara eta administrazioaren dirulaguntzak

Dirulaguntzaz gainera guzior konpromezua beharrezkoa da



Mª Jesus PERURENA
Eusko Alkartasuna

Erakunde des-
berdinek -Go-
bernu, udal eta
bertze- ematen dituzte dirula-
guntzak Euskararen inguruan
ikastaro, komunikabide eta
mota desberdinetako kultur
ekitaldiak antolatzeke edota
antolatzen laguntzeko.
Aunitz? Gutti? Nahikoa?
Nere eritzi pertsonalean, diru-
laguntzak ematerakoan era-
kondeek dituzten kriterioen
gainetik dago laguntza hoi-
helburua: Gurea den hizkuntza
honen ezaguera eta erabilera bul-
tztatzea eta zabaltzea, eta bizitza-
ko alor eta egoera guztietan era-
biltzeaz goxatzea, hau da, eus-
kararen normalizazioa zentzu-
rik aberatsenean, eta hortarako,
ematen den guztia eta gehi-
agoren premia dago.
Dirulaguntzak laguntzak dire-
la onartzeaz gain, bistan dago
ez direla nahikoa euskararen
normalizazioa erdiesteko. Hor-
taz gainera eta horren gaine-
tik egon behar duela guzior
sentsibilitatea, konpromezua,
e.a., ez baita atzendu behar
Hartzek idatzi zuena: «Hizkun-
tza bat ez da galtzen ez dakitenek
ikasten ez dutelako, dakitenek hi-
tze giten ez dutelako baizik».

Zein erizpide erabiltzen dute dirua banatzerakoan?



Esther MUGERTZA
Langarra Taldea

Eskean ibiltzera
ohitu gara eta di-
ru faltan ez gara
autonomoak, honela, menpe-
kotasun harremana behin be-
tiko finkatuz.
Euskara bizitzekotan indartu
behar dugu. Eraberean, eus-
karak ez ditu hizkuntz funtzio
oro betetzen, ezin da normal-
tasunez erabili eremu auni-
tzetan. Beraz, bere presentzia
ziurtatzeko, dinamika euskal-
dun baten alde jartzeko, bi
adaregi nagusiak uztartuko
ditugu: alde batetik herrita-
rrak prozesuan inplikatu, eta
bestalde, administrazioek
duten erantzunkizuna dela
medio, araudia hobetuz eta ba-
liabide ekonomikoak eskeiniz,
bertzeak bertze.
Bide bakarra dugu aitzinerat
egiteko: batekin joatea. Ho-
rretarako politikariak eta he-
rritarrok ahalmen eta bitarte-
koak batu eta elkarlanaren bi-
dea jorratuko dugu. Langa-
rraren Plangintza aitzinerat
eramateko baliabide ekono-
mikoak behar ditugu.
Taldekideok irudimenaz jan-
tzi eta instituzioak diruz jo-
sita: inork ez inon menpeko-
rik.

Lege atzerakoi eta kaltegarriak erretira-tzea eskatzen dugu



Txus PERNAUTE
Baztango AEK

Urte dexente
daramagu ego-
era berean: alde
batetik, osoki aplikatzen ez
duten eta euskararen beha-
rrak kontutan hartzen ez di-
tuen dekretu baten mehatxu
iraunkorra dugu, eta bertze-
tik, administrazioan inmo-
bilismoa eta utzikeria. Diru la-
guntzak ez dute funtziona-
tzen gure arloko beharrak
kontutan hartuz baizik eta
urtez urte onartzen duten
partida eskasaren arabera.
Honek, azken urteotan, ken-
ketak ekarri dizkigu ikasle
eta ordu gehiago baititugu
(1991n 76 Pta. ikasle/ordu-
ko; 1995ean 35 Pta. i/o; eta
Nafar Gobernuak Iruñean
eta Tuteran dituen euskalte-
giei 550 Pta. i/o).
Baztango udaletik jaso du-
gun dirulaguntza ez da nahi-
koa gure beharrei erantzute-
ko. Gainera, gauzak ongi doa-
zelako ustea zabalduta dago
gizartean, mezu desegokiak
edota arazoan planteamendu
folklorikoak zabaltzen direla-
ko. Euskararen berreskura-
penak partehartze aktiboak
behar ditu gizarte eta admi-
nistrazioaren aldetik ere.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4.30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittoria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekalde Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorenpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

BOTA BERTSOA



Espainiako Parlamenturako hauteskunde kanpaina

Iñigo OLAETXEA

Doinua: Aita izena...

Espainiako Hauteskundeetan gu ez gaitzaten engaina bertze herri bat garela argi uzteko aukera bikaina ideologien burruka hortan bozkatuaz eman "kaña"! Idei eskeintza onuragarri bihurtu liteke baina orokorrean engainatzea da hauteskunde kanpaina.

Milaka miloiz betetzen dute kanpaina politikoa azken finean gero errateko betikoak betikoa hainbertze "txapa", haibertze "mitin" nork ote du gustokoa? eta alferrik da gehienetan kanpaina oron joko aspaldidanik badakigu ta zeineri eman botoa.

IRAKURLEAK MINTZO

Topikoz erakartzen den turismoa, tipikoa izanen da. Kasu eman!

Mapa on bat eta informazio eskeintza ez hain ona dugu, gaur, Bertiz Partzuegoak argitaratutakoa. Orain berriki plazaratutakoari buruz ari naiz. Ari naiz, testu batzuk kritikatzeko, eta nere ikuspuntu pertsonalatik. Hiru dira, nerretzat, kritika motiboak:

1.- Topikoz jantzirik aurkitzen dut: Bailara Lasaiak, Baso Sorgindua,... betiko leloak. Irudi miresgarri hauek, gezurborobilak izan gabe, salmenta eritzi bat erakusten dute: aipa dezagun, bakarrik, alde politak. Eta behin bide hori aukuratuz gero...

2.- Muga irristakorrakoa duten egi-gezurak: Bidasoko Izokina edozein jattetetan jan daitekeela dirudi, bertan, behar bada, Baztango markesarekin topo egingen dugula; Harunzkoan, basoan topatuko ditugun animale-landare bilketak, irudiei kaso eginez gero, zeharo txundituak utziko gaituzte. Uda bada, edozein herritako bestaren batean harrijasotzaileen saioak, aizkolari zein trontzalarien txapelketak eta apustuak, zaku eta txingak edota sokatira saio apartak ikusten ahal dira. Dena ba-

tera? Nonahi?

3.- Hauek, mendeetan barrera ia aldatu gabe mantendu direnak, gune turistiko aparta bihurtzen dute gurea. Hor omen dugu etorkizuna. Errealitatearen alde batean bakarrik? Fija zaitezte irudietan: Ez kotxe bat, ez kable bat... industriak aipatzen dira, erakutsi gabe, noski; traba egiten duten gauzak moztu egiten dira.

Topikoz erakartzen den turismoa, tipikoa liteke, guztia beren inguruan dantzan nahi duen horietakoa, euliz edota behi kakaz kexu dena, aspertuko dena... Kasu eman!!

JUAINAS PAUL ARZAK



Malerrekan mediku euskalduna nahi dugu

Ondaraste hauetan Doneztebeko Osasun Etxearen inguruan, eta zehazkiago Jose M^a Lana medikuaren inguruan izandako afera dela eta, Malerrekan Euskara Batzordearen iritzia plazaratu beharrean gaude.

Malerrekan Osasunbideak aurkezten duen egoerari dagokionez zera azpimarratu behar da: mediku guztiak erdaldunak direla (ordezkapenak egiten dituztenak izan ezik).

Duela 3 urte familia medi-

ku bat behar zela ikusirik, ondoko baldintza hauek ezarri zituen Malerrekan Osasun Kontseiluak Osasunbideari eginiko eskarian: Familia mediku titulazioa izatea, bertan bizitzea eta konprometua hartzea eta euskalduna izatea. Garai hartan, langabezian, baldintza hоек betetzen zuten medikurik ez zegoenez, Osasunbideak Jose M^a Lana igorri zuen. Beranduxeago, Osasunbideako lanpostuen eskakizunei buruz 154/94 Dekretua argitaratu zen, eta hasiera batean Malerrekan Osasun Kontseiluaren eskaeraz zena, betebeharreko baldintza bihurtu zen.

Gure iduriz, erabaki okerra hartu dute Doneztebe eta Bertizarana udalek Osasunbideari erabaki hau aldarazten saiatzean. Konturatu gabe, behar bada, baina euskaldunon esku-bideak zapuztu eta legeak dioena bazterreraz utzi dute. Beraz, Malerrekan Euskara Batzordeak bi eskaera egin nahi ditu:

1.- Osasunbideak legea betetzea eta mediku euskaldun bat igortzea.

2.- Aipatutako lanpostu hori lehenbait lehen behin bertako oposizio-lehiaketan ateratzea.

MALERREKAKO
MANKOMUNITATEAKO
EUSKARA BATZORDEA



LESAKA

PIKABEA

Lehen Molinero
izandakoak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario Noticias 96-II-7

«Ez dul ilusio
haundirik egin nahi,
bainan inoiz baino
hurbilago sumatzen
dut profesionalelara
ailegatzeko aukera»

Unai APEZTEGIA

Iturengo pilotaria
Diario Noticias 96-II-7

«Estatu espainiar eta
frantsesen mugak
desagertuko balira,
euskaldunen arteko
loturak estutuko
lirateke»

Jean ANIOTZBEHERE

Sarako auzapeza
Egin 96-II-7

◆ **Zein da gustoko duzun urtaroa?**

❖ Uda.

◆ **Eta hilabetea?**

❖ Uztaila.

◆ **Egiten duzu aposturik lagunekin?**

❖ Gutxi, eta azkenekoa, Zugarramurdiko mutil batekin egindakoa galdu nuen.

◆ **Animalirik gustokoena?**

❖ Katuak, eta gehien siames arrazakoak.

◆ **Zenbat dituzu?**

❖ Zortzi, eta hauetatik bi, siamesak.

◆ **Ezagutzea gustatuko litzazizuen toki bat?**

❖ San Francisco..

◆ **Egin duzun azken besta?**

❖ Donostiako tanborradan.

◆ **Eta baduzu bistan bertzerik?**

❖ Inauterietan eta ondotik, lagun baten ezteietan.

◆ **Gustoko bi lanbide?**

❖ Argazkiak ateratzea eta loreak saltzea.

◆ **Urdazubiri bizitzeko toki bat?**

❖ Landibarko kaxkoa ezagutzen dut bakarrik eta trankil egoten denean maitagarria da, mugimenduak hasten direnean, kasu! Bosnia bezalaxe jartzen da. Instant bat gero, gaiarik gabe gelditzen denean, sua itzaltzen da bonberorik gabe.

◆ **Zer irakurtzen duzu gehiago egunkariak edo errebistak?**

❖ Bietatik, bainan egunkariak gehiago.



Alizia OLAIZOLA

Urdazubiko gaztea.

LOZOTEGI-JAIZOLA
LEKUZ ALDATU GARA
ORAIN

Altzate, 19 • 630786 • BERA

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta
barnizatzen dittut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

AYLA ARGAZKILARITZA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak

Bixente Taberna
Bidasoa 8
BERA ☎ 630075

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Bera

Emakumearen Egunaren inguruan ekitaldiak antolatu ditu Uxua taldeak

Herriko Etxeak, bertzalde, ez du bat egin Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitatearen idatziaekin

KRISTINA BOAN

Emakumeen Eguna ospatuz, ekitaldiak antolatu ditu martxoaren 7tik 10era Uxua emakume taldeak.

Egun guzti horietan, emakumeen eskulanean erakusketa izanen da Kultur Etxean.


Martxoaren 7an, ortzeguna, arratsaldeko 7etan, autoestimari buruzko hitzaldia eta sarrera gisa antzerkitxoak izanen da Kultur Etxean.

Leku eta ordu berean, ortziralean, 'Armas de mujer' pelikula ikusgai izanen da.

Egun berean, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela probetuz, Zalain jatetxean afaria izanen da gaueko 9,30etatik aitzinera. Afariaren prezioa 2.000 pezetakoa da eta izena emateko 631106 telefonora deitu behar da lehenbaitlehen.

Īnauteri jendetsuak

Īnauterietarako prestatutako ekitaldietan herritarren partaidetza haundia izan da. Kaldereroetan 200 bat lagun elkartu ziren eta Īnude eta artzaietan, ttikietan nahiz haundietan, bikote aunitz ikusi ziren.



Uxua emakume taldeak menopausiari buruz antolatutako hitzaldietara hainbat emakume hurbildu zen

Argazkia: Aitor Arozena

Herriko Etxeak ez du parte hartuko Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitatean

Berako Talde Antimilitaristak Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitatearen sorrera idatzia aurkeztu zuen otsailaren 5ean egindako ez-ohiko plenora. Halere, Berako Herriko Etxeak mankomunitate honetan parte hartzearen kontra azaldu zen, Herrialde eta EAko zinegotzien kontrako botoekin eta HBkoen aldekoekin.

Alkateak, beraien jarrera talde bezala eta Herriko Etxe bezala ez-

berdindu zituen. Herriko Etxe bezala, denen interesak defendatu behar dituzte eta horregatik, udala intsumitua izendatzearen kontra azaldu zen. Talde bezala, Kakitzat taldearen idatzi bat, indibidualki sinatu dutela adierazi zuen alkateak.

EAK bertze idatzi alternatiboa aurkeztu zuen, ETA eta borroka armatua gaitzetsiz.

HBko ordezkariak, intsumisioaren gaiarekin zerikusirik ez zue-

la eta "GAL eta gisako gauzak" ez zutela aipatzen ere erran zien EAko kideei. Intsumituen idatziaren eta borrokaren alde zegoela jakinarazi ondotik, "borroka hori indartuko duelakoz, Herriko Etxeak mankomunitateari lagundu behar dioela" adierazi zuen.

Eztabaidaren ondotik, EAK beraien eranskina onartu ez zenez kontrako botua eman zuen Herrialdek bezala eta HBk idatziaren alde agertu zen.

ttipi-flash

Altzateko Plazan

piboteak jartzeko espaloi bazterretan eta abiadura mugatzaileak paratzea eskatuz idatzi bat aurkeztu da udalean.

Udal bulegoak larunbatetan itxiak

Otsailatik aitzinera, Herriko Etxeko bulegoak itxirik egonen dira larunbatetan.

Xorroxin irratian

Herriko Etxeko kontuak errateko udal bozeramailea Fco. Javier Altzugarren kultur zinegotzia izanen da. Aho batez izandatu zuten.

VII. mendi bizikleta ibilaldian

130 txirrindularik parte hartu zuten otsailaren 11n. Bertze urteetan baino kopuru tikiagoa bada ere, kontuan hartu behar da eguraldi kaxkarra izan zutela partehertzaileek.

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Lesaka

Arkupe eta Beti Gazteren batzarrak egunotan

Pilotazale elkartearena martxoaren 2an eta Beti Gazterena martxoaren 1ean.

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak martxoaren 1ean egingen du bere urteroko batzar orokorra, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Kontuak begiratu, iazko balantzea eta aurtengo aurrekontua eztabaidatu, zelaia berri eman eta zuzendaritza batzordea aukeratu dituzte.

Arkupe pilotazale elkarteak martxoaren 2an burutuko du batzarra, arratsaldeko 6etatik aitzinera. Landuko dituzten puntuen artean, kontuen egoera, iazko balantzea eta aurtengo egitaraua eta aurrekontua izanen dira.

Inguruko akta gehienak erdaraz

Azken plenoan EAko ordezkariak errandakoari erantzunez, inguruko herri gehienetako udal aktak erdaraz idazten direla erran du alkateak, "konpondu beharrekoa, bainan hori da errealitatea" adieraziz.

Haizeak kalte ugari sortu ditu

Otsaila hasieran izan zen haizete ikaragarriak hainbat kalte sortu zituen herrian. Teilatu aunitzetan tei-



Zaku-zaharrek ohiko bukaera izan dute aurten. Beraiekin batera, inauteriak ere umore ederrean joan dira.

Lan arazoei buruzko inkesta burutu berri du Lan Taldeak eta plenora mozioa aurkeztu du

Herrian dagoen lanari buruzko egoera aztertzeko inkesta bat burutu berri du Lan Taldeak. Honetaz gain, ortziraleko plenora zenbait eskari aurkeztu zituen. Alde bateatik, langabetuak bilatzeko lokal bat eskatu zuten. Fabrika lan egiteko, "inolako diskriminaziorik onartu gabe, nahi duten le-

sakar guziak lan egin ahal izatea" eta "bizimodurik ez duten guztiek subsidio duin bat izan dezaten, Herriko Etxeak zenbait ekimen burutzea" ere eskatu du Lan Taldeak. Taldeko kideen ustez, "CSI lantegian herriko jende gehienaz gain, inguruko herrietako langileak ari badira ere, enpresak

sortzen dituen kalteak Lesakan bakarrik gelditzen dira eta, halere, langabetuak daude herrian" dio Lan Taldeak. Lan baldintzei dagokienez, Lesakako fabrika ari diren 250-300 ebentualak "intimidatuak eta langabeziaren beldur" daude, beti ere Lan Taldeak aurkeztutako idatziaren arabera.

lak hegatu ziren eta zuhaitzak nonahi ageri ziren errotik ateriak edo enborretik hautsiak. Irain eskolako frontoiko teilatuaren

zati bat erori zen, kirol taldeen entrenamenduak eragotziz.

Sukaldaritza ikastaroa

Otsailaren 22an ha-

si eta martxoaren 28ra arte sukaldaritza ikastaroa izanen da ortzegunero, arratsaldeko 6etatik 9etara, CANek antolatua.

Personaiak



Rafael MARITXALAR
23 urte, laisterkalaria

Euskal Herriko cross txapelketan 6. izan zara. Espero zenuen honelako emaitza?

Ezta inondik ere. 20 lehenbizikoetan gelditzea emaitza ona zen nerezat. Hasieratik aitzinean paratu nintzen, TBn ateratzeko eta gero ongi sentitu nintzen.

Orain artean egin duzun lorpen haundiena izan da?

Bai, inguruan nituen korrikalarien kategoria ikusirik, dudik gabe.

Noiztik ari zara atletismoan. Zein espezialitatetan moldatzen zara ongien?

15 urtetan hasi nintzen eta nere espezialitatea 1.500 metroak pistan dira.

Kirolera dedikatzeak, zure bizia aunitz aldatu du?

Bai, janariari gehiago begiratzen diot eta ezin dut nahi bertze besta egitera ateri. Aurten hirugarren urtez gelditu naiz inauteririk gabe.

Zein probatan parte hartu behar duzu orain?

Martxoaren 10ean, Espainiako cross txapelketa indibidualean parte hartuko dut.

INAXIO JANARIDENDA
Ingandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

BEREAU

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



Etxelar

Kanposanturako ordenantza egiteko asmotan dabil Udala

Leku eskasiari aterabidea ere eman nahi dio

PELLO ETA ALBERTO

Herritar batzuek hilibian nitxoak eraikitze baimena eskatu dute, lurpeko nitxoak. Udaltzuek baiezkoa eman die, eta pentsatzen hasi ere bai, ez ote den hori izanen, behar bada, kanposantuko estatusunentzako soluziobidea. Dena den, bertze gauza batzuk ere kontutan hartu behar direla eta, hilerrirako ordenantza berezi baten beharra adierazi du.

Muslari eta partxislarien afaria

Larraburuko mus eta partxis txapelketako partaideek afari egin zuten otsailaren 3an, bertze urtetan bezala. Eta mus nahiz partxis



Futboleant ikasi nahi dutela eta, haur talde polita biltzen da asteazken arratsaldeetan. Joxe Mari dute irakasle

Argazkia: PELLO

txapelketan parte hartutako guztiak han zirela erraten ahal dugu, ezbeharrak edo eritasunak oztopatutakoak izan ezik. Dena den, museko norgehiagoka ez da bukatu heldu den

udazkenara arte, aintzineko urteetan hala izan bada ere. Hile honetan bertan hasiko baita mus lehiaketa berria. Jendeak badu goa, ordu atseginak pasatzen ditu, badu el-

karrekin biltzeko aitzakia bat gehiago.

Bertsolaritza eskola herrian

Badira urte batzuk Bertso Eskola Bortzietan sortu zela. Aurtent, ordea, zabaldu

egin da, eta, horrela, Etxelarren ere izanen da aurtent, sei gaztek izena eman dutenez gero. Axuraren segitzailerik ikusten ahal izanen dugu, behar bada. Dena den, momentuz emaztekiak dira nagusi, izen eman dutenen artean.

Ehizarako koto berritzea

Herriko ehizesparru edo kotoak 10 urteko epea du, urte horietarako baitu baimena emana Gobernuak, buroilaren 25era arte, xeheki. Akotatzeko baimena Udalak eskatzen du herriaren izenean, eta bertze 10 urterako eskatu du, heldu den buroiletik hasi eta. Udalak, gero, Etxelarko Ehizturi Elkarteari emanen dio.



Albistur, 39-K • 627542 • LESAKA

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - 637264

koxkonta



Sagardotegia
zabalik

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

ORBELA

gimnasioa

Squash • muskulazioa • sauna

637950 • LESAKA



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Igantzi

102 urte bete ditu aste honetan Patxiku Iriberekoak

Otsailaren 24an izanen da Biltokiko urteko batzar nagusia

OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 24ean, arratsaldeko 8,30etan egingen da Biltoki elkartearen urteko batzar nagusia. Bazkideek hartutako deian ageri den bezala, hauexek izanen dira gaiak: 1. Urteko kontuak; 2. urteko ekintzak; 3. bazkideen alta eta baja; 4. Biltoki Titikiko egoera; 5. eskaera eta galdarak eta 6. Junta berritzea (lehendakaria eta sei bokal).

Ski ikastaroak

Martxoaren 3tik 8ra zazpi haur eta irakasle bat joanen dira Igantziko eskolatik Isabara ski ikastaro batzutan parte hartzera. Isabako etxe batean egingen dute lo eta egutero bi orduko kla-



Joan den asteartean, otsailaren 20an, 102 urte bete zituen Patxiku Etxeberriak, Iribereko 'osabak'. Ne-gu partean nahiko erretiratuta egon bada ere, gogotan dago berriz ere Sarrola inguruan paseatzen hasteko.

seak izanen dituzte ski irakasle batekin.

Udal plenoa

Azkeneko udal plenon bertzte gai batzuren artean, Elkarri el-



Ezin izan zion Agestenekobordako atariko haritz ederrak otsailaren 7an arratsaldean eta gaur ibilitako haizearen indarrari eutsi. Bere enbor zaharra gerri gerritik puskatu zen, eta erori zen aldera erori beharrean, etxe aldera erori izan balitz bertze zerbaitetaz egonen ginateke orain solasean Arg.: Oskar TXOPERENA

karrizketaren aldeko erakundeari 100.000 pezetako laguntza ematea erabaki zuen udalbatzak, PNVko bi zinegotzien abstentzioarekin.

Geroxeago, martxoaren 3ko hauteskundeetan mahaian egon behar dutenak berezi zituzten: Luis Mari Migelena izanen da mahaiburua eta Eduardo Migelena eta Jose M^a Zelaieta izanen ditut mahaikide.

Kanale zatia erori egin zen

Orain dela aste pare bat Arantzatik Igantziko Bentara doaien ur kanalaren zati bat erori egin zen errepidera, Arantzako mugamugan. Lehenbaitlehen moldatzeko lanetan ari dira orain.



24 ORDUKO BUS ZERBITZUA

- 17 jarlekuko mikrobusa
- 55 jarlekuko autobusa
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN



BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerrria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

SASOI Eskabazioak E.M.S.

☎ 450165 • 908.779366 (Patxi)

☎ 450286 • 908.165399 (Pello)



ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
☎ 63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



☎ 631076 • BERA

ttipi-ttapa

6.200 harpidedun
21.000 irakurle

Eguraldi txarra bainan giro ederra aurtengo iñauterietan

Ortzeguneko emakumeen afaritik hasi eta igandeko herri kirol desafioak arte, denetik izan zen

GARBIÑE ETA ELIXABET

Otsailaren 8tik 11ra iñauteriak ospatu genituen. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu giro ederrean pasatu ditugu. Ortzeguneko emakumeek Burlada ostatuan afaldu zuten. 23 emakumek giro ederrean afaldu ondoren moztorroekin dantzatu zuten eta emakume batzuk moztorroak ere agertu ziren. Ortziralean bertso afaria izan zen Ekaitza elkarteak, Xabier Silveira, Iñigo Olaetxea eta Estitxu Arozena bertsolari gazteekin. Larunbatean, disfraz aunitz ikusteko aukera izan zen. Igande eguerdian, apostuak izan ziren, moztorroak Donato Larretxearen



Mozorroek umore onean pasatu dituzte iñauteriak

kontra. Ondoren, Aterpen, 60 bat lagunek bazkaldu zuten Xebastian Lizaso eta Jokin Soroazabal bertsolariekin.

HBrensolasaldia Ekaitzan

Herri Batasunak o-

tsailaren 23an gaueko 9etan Ekaitza elkarteak bere 'alternatibademokratikoa' aurkeztuko du. Herriz herri ari da HB alternatiba hau aurkeztean, honen helburua Hego Euskal Herria eta estatu es-

painiarraren arteko gatazka politikoari irtenbidea ematea izanen litzateke. Bertara, arantzaz guztiak gonbidatuak daude eta informatzeaz gain, zalanburuak plazaratu ahal izanen omen dira.

Euskara mankomunitatearen bilera

Joan den ortzeguneko, otsailaren 15ean, Arantzako Herriko Etxean burutu zen Bortzirietako Euskara mankomunitatearen bilera.

Joan den urtean, Lesakako alkateak mankomunitatearen estatutuak aldatzea eskatu zuen eta gainerakoan, Lesaka erakundetik aterako zela adierazi zuen. Bileran aho batez erabakienez, Lesakako udalak bere proposamena idatziz aurkeztu beharko dio mankomunitateari eta, ondoren, hori oinarritzat hartuz, hasiko dira estatutuak eztabaizatzen.

ANTZUZELAI S.L.

Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiak
Angeluak	Erilaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	

"Abujardadoa" Mazorra
Zuhar antzekoa Txapentxa

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGEA JATETXEA

© 634179
ARANTZA

Andregaiak eta amautxiak

Jantziak neurrira eginak
M^a Nieves • 943-627977 • IRUN
Euskaraz badakigu

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

SAGARDOTEGI MENUA

Txorizoa sagardoan egina
Bakailu Tortilla
Idi Txuleta
Gasna, menbrilloa eta intraurrak
Nahi den sagardo guztia
4.000 pezeta bikotea

© 635290
ETXALAR

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

XATURETXEA

JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

Sunbilla

Otsaila hasierako ekaitzak frontoiko teilatua eta hainbat baserri kaltetu

Martxoaren 3an hauteskunde-mahaian egonen direnak aukeratzeko zozketa egin zen

IXABEL ETA JOSUNE

Otsailaren 7an egin-dako eguraldi kaxkarak, haizeak eta eurriak, batez ere, hainbat kalte sortu ditu herriko zenbait lekuetan. Alde batetik, frontoian, kristalak eta teilatua txikitu zituen eta horregatik, berriro, futbol-sala txapelketa Doneztebeko eskolako frontoian jokatzeko ari dira.

Bertze aldetik, baserri aunitzetan ere kalteak nabarmenak izan dira. Batzuetan teilak airatu dituzte, azienda eta belar bordetan ere kalteak izan dira eta pinudi batzuk hondatuak gelditu dira. Halere, bertze lekuetan izan diren kalte personalik ez



Otsailaren 7ko haize erasoak kalte dexente sortu zituen herriko bazter aunitzetan

Arg.: Artxiboa

da izan Sunbillan, zorronez.

Hauteskundeak

Datorren martxoaren 3an, Espainiako Parlamentu eta Sena-

turako hauteskundeak direla eta hainbat mugimendu sumatzen da komunikabide guztietan. Gure herrian ere, egun horretan hauteskunde mahaian nort-

zuk egon behar diren zozketatu zen eta hauek izanen dira, botoa ematerakoan mahaian topatuko dituzuenak:

Lehendakaria: Beatriz Iraizoz. **Lehen**

ordezkoa: Alfredo Arretxea. **Bigarren ordezkia:** Miguel M^a Mariezkurrena.

Lehen mahaikidea: Juanjo Petirena. **Lehen ordezkia:** Elena Irureta. **Bigarren ordezkia:** Consuelo Eleta.

Bigarren mahaikidea: Clemente Iriarte. **Lehen ordezkia:** Maria Jesus Iriarte. **Bigarren ordezkia:** M^a Victoria Jaimarena.

Antzakaitz taldearen bilerak

Antzakaitz kultur taldearen bilerak, larunbatero burutzen dira Bustitz ostatuan, arratsakdeko 3etatik aitzinera.



SANTAMARIA Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibleko aldetik. Asteburuetan itxita dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

BELARRA

Ostatu Jatetxea

Amezti 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe


San Miguel auzoan lautan hogei pisu berri egin gogo dira

Malerrekako Euskara Batzordeak Doneztebe eta Bertizaranako medikuaren aferari buruzko iritzia plazaratu du

TXEMA ALDABE

Osasun Zentrotik hasi eta Ezkurra uhaldearen eskuinaldean, Elgorriaga aldeko lur-rean 80 pisu egingen dira, bertze makurrik edo alegaziorik ez bada, orain hasi eta bortz urteko epea. Sapu-4 izeneko plangintza honek 16.415 m² hartuko ditu, hauetatik 3.240 m² etxebizitzek hartuko lukete, berdeguneen artean 2.851 m², bi-deak, berriz, 7.981 m² eta egingen litzatekeen plazak 2.363 m². Plan hau gauzatu ahal izateko Zabala, Sarratea, Irigoien, Jadraque, Oiartzabal eta Artazkozen lur eremuetan egingen litzateke. Alegazioak egiteko epea martxoaren 7an akituko da.

Bertalde, erran behar da, Doneztebeko Udalak joan den hileztaren 26an egingen dako plenoan onartu zuela Sapu-5 izeneko hasierako proiektua,



80 etxebizitza berri egin nahi dira herrian

Argazkia: Artxiboa

Emilio Zabalak eta Jose Juanenak hala eskatuta. Erabat onartu ahal izateko Nafarroako Aldizkarian atera eta hilabete bateko epea bete behar da, jendeak ikusi eta kontrako iritzirik ez bada behinpin behin betirako onartzeko.

Euskara Batzordea eta medikua
Doneztebe eta Ber-


tizaranako medikua den Jose M^a Lanari hiru urtetako kontratua akitu zaiola eta, berriz berari berritzea nahi zelako, herritarren firma bilketa egin zen Bertizarana eta Donezteben, bi udaletan mozioak aurkeztu eta Iruñera Gizarte Gizarte Baliabideko zuzendariarengana jo zuten udal hauetako ordezkariak. Baina aferako

netan aipatu ez dena eta plazaratu nahi izan ez dena, hagitx garrantzitsu eta erabakiorra izan daitekeen euskararen gaia da. Legeak dioenez, lanpostu hau mediku euskaldun batek bete behar du. Hori hartu zuen kontuan Osasunbideak eta hasierako pentsamendua hori zen, nonbait. Gauzak horrela, Malerrekkako Euskara Batzor-

dea argitu nahi du: bi udal hauek eta firma bilketa bultzatu zuten desinformazioa eta zuzen jokatu ez izana. Hori dela eta, euskaldunen eskubideak errespetatzeko eskatu zaie aipatutako bi Herriko Etxeei.

Maisuen Etxeko pisuak saltzera aterako dira

Hasiera batean baliabide gutti zutenen dako alokatu nahi baziren pisu hauek, Doneztebeko Udalak azken plenoan salgai ateratzeko erabakia hartu zuen. Saltzera aterako diren pisuan hirugarren solairuan dauden biak eta laugarreneko eskuinekoa izanen dira oraingoz, gerora begira denak, bertze bortzak, saltzera aterako nahi badituzte ere. Subastaren mediodz egingen da salmenta eta uste da 4.600.000 pezeta izanen dela hasierako prezioa.



Asteburuetan kontzertuak

Igandea 25, 8,30etan: **Javier SUN**
Igandea 11, 8,30etan: **FAB**

Bokadilloak
eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • 450991 • DONEZTEBE

ASKIN taberna

Elizagibela • 451849 • DONEZTEBE

berriro irekia

- ✓ Pintxoak
- ✓ Bokatak
- ✓ Hanburgesak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Patata bixiak
- ✓ Patata fritituak

*Giro eta musika
onaz gozatzeko*

Igandetan goizeko 6etan idekia
bokadilloak... ematen ditugu

Malerreka

Jose M^a Arakama euskara teknikaria abudo joanen da

Langarrak plaza fijo atera atzeratzea eskatu dio Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateari

TXEMA ALDABE

Orain arte eta be-deratzi hilabetez Male-rrakako Euskara Zerbi-tzuan lanean aritu on-doren, Jose Mari Ara-kama hilabete honen ondarrean joanen da, bertze plaza bat atera duelako. Azkeneko ur-teetan lau teknikari pa-satu dira Malerrekatik, eta batek utzi eta hu-rrengoak hartu arte tar-teak izan dira teknika-rik gabe, hemengo euskararen martxaren kalterako. Hori dela eta, Langarra euskara taldeak lanpostu hau fijo edo behin betikoa ateratzea eskatu dio



Iñauteriak ospatu dituzte Malerrekako herri gehienetan

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateari.

Aurkeztutako txos-ten edo informean ar-

gi gelditzen da ez da-goela inongo kontra-

Zuhaitz plantazioak eginen dira Iturengo eremu ezberdinetan

TTIPI-TTAPA

Ameztia aldean, Untzaleku, Tellegi eta Makilipurdi ingurue-tan zehazki errateko, zenbait plantazio egi-ten ari dira Nafarroako Gobernuaren eskutik. Proiektuaren aurre-kontua 12 milioi pe-zetakoa da eta gehien bat, bertako landareak sartzen ari dira (hari-tza, lizarra, bagoa, ge-rezia, haritz amerika-noa...).

Bertzalde, Iturengo udalak egindako

proiektu batean bertze 3.000 landare sartuko dira Akarrikoa-Ituren eta Urrotzko lurretan-, Abatxakara eta Altsune-koborda inguruetan. Aurrekontua 700.000 pezetakoa izanen da. Josetxo Iparagirre al-kateak adierazi due-nez, errepoblazioak le-hen landatutako tokie-tan eginen dira, "ge-hien bat haritz eta ge-reziarekin, eta lehen-dik plantak laketu ez duten lekuetan pinua sartuko dugu".

MAIKA ARIZTEGI ZAZPIGARREN

Maika Ariztegi, Gure Txokoa taldean aritzen den laisterka-lari iturendarrak zaz-pigarren postua esku-ratu zuen otsailaren 11n Abadiño burutu-tako Euskal Herriko cross txapelketan.

Maika Espainiako cross txapelketan par-te hartuko du datorren asteburuan. Ea hemen ere aitzineko postue-tan bukatzea lortzen duen.

Zubietan martxoaren 3ko hauteskundeak begira

AINHOA MUTUBERRIA

Martxoaren 3an, hauteskundeak ditugu. Gaurko egunean, na-hasketa haundia dago espainiar estatuan eta ez dakigu egoera hau nola amaituko den. Nor aukeratu? Felipe ala Aznar. Guk, euskal-dunok, badakigu zer nahi dugun gutti goiti behiti. Hala ere, etor-kizuna oso iluna dator. Jadanik Rappel aztiak esan digu nor izanen den irabazlea aurtengo hauteskundeetan.

ko arrazoirik -ezta ekonomikoa ere- fijo a-izateko. Bai, ordean, al-dekoak, eta aunitz gai-nera. Bakarrik geldi-tzen da euskaltzaleon partetik eskerrak ena-tea Jose Mariri.

Haizea gogor ibili da

Inguruko herri gehienetan bezalaxe, Malerrekako ere haizea gogor ibili zen otsai-laren 7ko arrats parte-an. Ez zen girorik izan pasiatzeko ez mendian ezta herrietan ere... zuhaitzak ez baziren teilak erortzen baitzi-ren. Argirik gabe ere egon ginen 14 orduz.

Hala bada edo ez ba-da, 3an bertan ikusiko dugu. Gurutzatu be-hatzak eta dakienak erreza ditzala errosa-rioko hamabost miste-rioak, oso-osorik.

Alde seriotik urrun-duz, egun osoa esko-lan pasatuko duten pertsona horiek has daitezela entretenitze-ko moduak asmatzen, hamar ordu gutxienez igaro beharko dute eta. Eskerrak bideo ederra badagoela hantxe ber-tan.

IBARROLA %30
DESKUENTOAK %40
%50

ARTIKULU GUZIETAN

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

60,7 milioi Elgorriagako ur-hornidura eta saneamendu sareak berritzeko

T.T

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio sailak Hirurteko Plangintzaren barnean sartu du Elgorriagako ur-hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lanak. Honela, 78,8 milioi pezetako aurrekontu batetik 60,7 milioiko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Lanen ondorioz, herrigunetik pasatzen diren erreka estalietara egiten diren ur-zikinen isuriak ezabatuko dira. Eraberean, euri uretarako tuberia zati berriak egiten dira eta, lanak bukatzerakoan, zola Baztango harriarekin estaliko da, gaur egun dagoen bezalatsu.

12,7 milioi Donamariako Herriko Etxea moldatzeko

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio sailak Hirurteko Plangintzaren barnean sartu du Donamariako Herriko Etxeko barnealdea moldatzeko lanak. Gaur egun erabiltzen ez diren lekuak berreskuratu nahi dira eta, Herriko Etxeari itxekiak, biltegi gisa erabiltzen ziren estalpe batzuk bota eta berriak egiten dira. Mobleak paratzea eta Herriko Etxearen kanpoalde txukuntza ere proiektuan sartuak daude. Nafarroako Gobernuak, 17,5 milioiko aurrekontu batetik, 12,7 milioi emanen ditu.

Ezkurako Etxeberrikoborda baserria suak kixkali zuen

Ezkurako herrigunetik bi kilometrora dagoen Etxeberrikoborda guztiz hondatua gelditu da otsailaren 11n gertatutako sute baten ondorioz. Baserria kix-

kalia gelditu bazen ere, bertan bizi zen M^a Jesus Hernandorena eta aziendak onik aterra ahal izan zituzten. Etxeak ez omen zuen asegurorik.

Oinezko bat larriki zauritu zuen auto batek Donezteben




Javier Bello 20 urteko labaiendarra larriki zauritua suertatu zen otsailaren 11ko goizaldean Doneztebe-ko Ameztiara ostatuaren aitzinean kotxe batek

kolpatu ondotik. Gazteak zenbait hezur xehetuak zituen eta DYAKo anbulantzia batek Iruñeako Virgen del Camino ospitalera eramanez.

**P.A.C.
96**

**CAJA RURAL DE NAVARRAren
"AZALERA ETA AZIENDENDAKO
LAGUNTZA" ZERBITZUA**

LEHEN SEKTOREA LAGUNTZEN ESPEZIALISTAK



'Azalera eta aziendendako Laguntza' zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarra zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorrena eskeintzen dizu.

Etor zaitez Caja Ruralera eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

1996-1997 Komertzializazio Kanpainarako Azalerengatik Laguntza Eskaria (1996ko uztak), 1996ko azienda sariak eskuratzeko bazkalekuen deklarazioa

eta ardi, ahuntz eta behi haragi produktoreendako eta 1996rako behi amak mantentzen dituztenendako Laguntza Eskaria.



CAJA RURAL DE NAVARRA

LAGUNTZA ESKARIA
ORAIN BAITA **ARDI, BEHI**
AMA ETA ARETZE
LAGUNTZENDAKO ERE

Goizueta

Parapente ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitatearekin bat egin ondotik, Udalak ez du soldaduskaren aldeko funtziorik hartuko

ESTEBAN AROZENA

Bi zatitan—teorikoa eta praktikoa—banatu ko den parapente ikastaro batean izena emateko epea zabalik dago herrian, 30.000 pezetako prezioarekin eta hiru-lau asteburu iraungo duena. Esan behar da, aseguru, hegagan egiteko materiala eta mendira egin beharrekoko desplazamenduak ere kuota horretan sartuko direla.

Urrutinea taberna-ra jo behar da zerrendan apuntatzeko, baita informazio gehiago jasotzeko ere.

Intsumituekin bat egin du Udalak

Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatearekin (EUDIMA) eraketa agiria berea egin zuen udalak duela egun batzuk ospatutako ple-noan.


Onartutako mozioak dioenez, Mankomunitateko udalek bat egi-

ten dute espainiar ejerzitoan soldaduska betetzeari uko egiteko edozein herritarra duen eskubidearekin. Eraberean, ez dute soldaduskaren aldeko ekintzarik edo funtzio-

rik onartuko, esate baterako, kintoen sekzioak, militar manio-brak, etabar...

Rock kontzertua

Iñauteri ofizialetik kanpo izan arren, iga-



30.000 pezetaren truke, hiru-lau asteburu iraungo duen parapente ikastaroan parte hartu ahal izango da

Artxiboa

ro berriak diren egun hoiekin lotura estua du hurrengo larunbata gauerako Gazte Asanbladak Tifanitxon antolatu duen rock kontzertuak. Hau idazterakoan oraindik erabat osatzekoa egon arren joko dutenen zerrenda, punta-puntako gutxienez hiru taldeen presentzia ziurtatua omen dago, gazteen erakunde horren arduradunek esan zigutenez.

Umore Onaren batzarra

Umore Ona elkar-teak martxoaren 2an egingo du bere ohiko asanblada orokorra. Besteak beste, Xanti Bakeroren lekua hartuko duen presidentea hautatuko da bertan.

Areso

Iñauterietako egun haundia larunbata izan zen

Bi atsoguratu herrian zehar eskean ibili ziren

JUANA M^a SAIZAR

Iñauterietako egun haundia larunbata izan zen. Alde batetik Larrea elkartean afa-ria egin zuten 70 lagunek. Dantzaldia goizaldera arte luzatu zen, giro alai eta umoretsuan. Beste aldetik Pake-Toki elkartean egindako afarian 160 lagun elkartu ziren, sokatira taldearen txapela eta emaitza onak ospatuz. Egun horretan,



Neska-mutikoez rockero talde bat osatu zuten iñauterietan

Juana Mari

560 kiloko kategorian bigarren postua lortu

zuten. 60 litroko bi sargardo kupel ekarri zi-

tuzten eta txotxetik ari-tu ziren. Dantzarako

trikitixa izan zuten eta goizaldera kalejira.

Larunbat horretan, garai bateko ohiturak berreskuratu nahian, bi atsoguratu ibiliak ziren herri guztian zehar ateak joka makilarekin eta eskean. Laranjak, arraultzeak eta intxaurrak bildu zituzten. Herriko zaharrenak oso pozik zeuden hau ikusita eta beraien eskuzabaltasuna erakutsi zieten bi lagun hauei, bere saskiak besteak baitzituzten.

Leitza

Haize erroten proiektuari hiru alegazio aurkeztu zaie

EHNk haize errotetatik eskuratzen den argindar produkzioaren %5 ordainduko dio Udalari

JOSEBA AZPIROZ

Haize errotak jartzeko plan bereziaren erakusketa publikoa bukatu aurretik, hiru alegazio aurkeztu dira. Bata Leitza HB-ren udal taldearena eta beste biak partikularrenak. HBk egin zituen 8 zehaztapenak bere gain hartu ditu EHN enpresak. Horren ondorioz, Udala eta enpresaren arteko komisiio bat sortuko da; EHN enpresak haize errota bakoitzetik eskuratzen den argindar produkzioaren balioaren %5a Udalari ordainduko dio, Parlamentuak hori egiteko baimenik ematen bada, behintzat. Sinatutako hitzarmenaren arabera, enpresak haize errotak jartzeko egin behar duen obraren %2a ordaindu behar duen obra tasa moduan. Alegazioaren ondorioz, obrarena ezezik instalazioen balioarena ere ordainduko du. Parkea martxan jartzen



Otsailaren 7ko haizeak zuhaitz enbor ederrak zatitu zituen

Joseba

denetik hiru urteko epea izanen du Udalak, kontuak ikusi ondoren, %10 erosteko. Sortzen diren lanpostuak, ahal den neurrian, herriko jendearentzat izanen direla ere sinatu du EHNk. Azkenik, Aritz mendira doan bidea debekatua egonen da ibilgailuentzat. Partikular baten alegazioa ere onartu da eta besteak mendia dagoen bezain lasai mantendu behar dela dio.

Martxorako hainbat ekitaldi prestatu ditu Ttanttoka taldeak

Martxoaren 8an autoestima ikastaroa rekin hasiera emanen zaio Ttanttoka emakume taldeak prestatutako ekitaldiei. Aurrean, 8etan izanen da. Ondoren Torrean afaria izanen da. Autoestima ikastaroa martxoako hurrengo lau ostiraletan emanen da, denak Aurreran eta 8etan hasita.

Martxoaren 9 eta 10ean emakume argazki erakusketa Torrean egonen da ikusgai. 9an, partxis lehia-keta ere jokatu da.

Martxoaren 10ean Leitza zinean "Shirley Valentine" pelikula ikusi ahal izanen da, hurrengo ostiraleko solasaldian aztergai izanen delarik.

ttipi-flash

Leitza eta Larraungo

udalek 7,7 milioi pezetako dirulaguntza jasoko dute Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio sailetik. Dirua, zabor biltzetarako nabe bat eta kanpoaldeko patioa egiteko erabiliko da. Aurrekontu osoa 11 milioikoa da.

Aurrera elkarteak

Leitza-Aizan-Sasain-Usategieta-Goizueta mendi ibilaldia antolatu du hilaren 25erako. Goizeko 8etan plazan biltzekoak dira. Goizuetan bazkaltzeko aukera izanen da 1.800 pezetan truke eta autobusez etorriko dira bueltan. Izena Astiz edo Maimurren eman behar da 22a baino lehen.

Barrikotea


izanen da martxoaren 2an Torrean elkartean. Prezioa 2.200 pzta da eta izena emateko epea 29an bukatuko da. Giroa alaitzen Faltesko gaiteroak ariko dira.

ttipi-ttapa

Gida Komertziala %6

Badakizu zenbat balio duen zure anuntzioa hemen sartzeak?

☎ 63 11 88



Esker Onak
Urtemugak
Eskelak

Familiakoren bat edo lagun bat hiltzen bazaizu

ttipi-ttapak

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88

Baztan

Arkupeak elkarteak besta haundia egin nahi du Belateko tunelean

Mendiaren alde honetako jubilatuek Ultzama aldekoekin elkartuko lirake, iraila aldera

JOSEBA IGARABIDE

Arkupeak elkarteak Belateko tunelean besta bat egiteko idea dute iraila aldera, jende guziari zabaldua. Ultzamako jubilatuekin bilduz besta erraldi bat egiteko asmoa azaldu dute. Ez da burutan duten asmo bakarra: Gogo jardunak egin berri dituzte Oharrizen, Santiagora ibilbidea oinez egin nahi dute baita Kariberrako bidaia ere.

Yolanda Amaiurko maistra hil da

Yolanda Ibarrola. Amaiurko maistra zena otsailaren 9an hil zen. 44 urte zituen Yolandak, horietatik 17 Amaiurko eskolari emanak.

Euskara taldea

Baztanen sortzen ari den euskara taldeak bilerak izaten ari ditu. Euskararen erabilera eta presentzia berpiztu eta karrikaratu nahi du. Bilerak irekiak direnez, Elizondoko



Eguraldi txarrak, batez ere haizeak, hainbat kalte egin ditu Baztango bazterretan

Argazkia: Karmele

Pirrintenea ostatuan egiten dute.

Bertso afaria suspenditua

Ikastolak antolatutako bertso afaria suspenditu zen. Txartela hartua zutenek, erosi-

tako lekura joan eta dirua itzuliko diete.

Hamabi ordu euskaraz

Baztanen 'Hamabi ordu euskaraz' egingen da apirilaren 21ean. Baztango zenbait el-

kartek bultzatuta hainbat ekitaldi egingen dira, denak euskaraz.

Xoterok deklaratu zuen

Xotero Etxandi Arraiozko parlamentariak Iruñeko epaitegian deklaratu zuen otsailaren 8an, joan den urtean atxilotu zutenean jasotako torturei buruz.

Eguraldi ikaragarria

Otsailaren 7an egin dako haize eta euri erauntsiek kalte haundia sortu dute Baztango bazterretan. Zuhaitzak ateriak nonahi ageri ziren eta ordu batzuz argirik gabe egon ginen.

Karneta berritzeko egunak

Martxoaren 7an eta 21ean Estatuko Nortasun Agiria berritzeko edo lehen aldiz egiteko Elizondoko Herriko Etxean egonen dira.

Mapa turistikoa

Eskualdeko mapa turistikoa plazaratu berri du Bertizko Turismo Partzuergoak.

tltipi-flash

Elizondoko

"Maria Josefa Recio" erresidentziarako ekipamendua erosteko 5,8 milioi gastatuko dira. Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate sailak 2,8 milioiko laguntza eman du.

Laxoa elkarteak

192.000 pezetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gaztedi sailatik, joan den urteko Baztan-Erreka-ko laxoa txapelketa antolatzeagatik.

Arraiozko

alkateak egindako eskariaren ondorioz, oinezkoak errepidea pasatzeko seinaleak paratzea eskatuko du Udalak. Hiru lekutan paratuko dira, zubiaren bi aldeetan eta Oronoz alderako sarreran.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDABERRIKO ARROPAK

Arropak, konplementoak, bitxiak...
Punta-puntako moda!

ARLA

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago, 56 • ELIZONDO
☎ 45 32 66 (etxekoa) ☎ 45 24 73 (bodega)

M^{re} Dolores Miñana
TOPOGRAFA

NEURKETA • PLANOAK



Lur neurketak, Luberrak
Plantazioak, etab...
Santiago 68, 3. esk. ☎ 580143
ELIZONDO



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

Mikel Goñi pilotari oronoztarra profesionaletan aritu da lehen aldiz

Hemezortzi urte bertzerik ez dituen mutilak, bi urterako kontratua izenpetu du Asegarce enpresarekin

Josu INZIARTE

Larunbat honetan debutatu du pilotari profesional bezala Mikel Goñik, 18 urteko aurrelari oronoztarra.

Hasiera batean, Belokirekin batera Unanue-Galarzaren aurka jokatu zuela erran bazuten ere, azkeneak partidu apalxeagoan aritu da, Errastirekin bikote eginez, Gorostiza eta Armendarizen kontra.

Mikelek komunikabideei onartu dienez, "Asegarcera joan eta berehala debutatu behar nuela erran zidatenean harritua gelditu nintzen". Halere, baiezkoa eman zuen "tren hau akaso ez delakoz bi aldiz pasatuko". Hemendik aitzina, Goñi II izanen da.



Mikel Goñi oronoztarra Errastirekin bikote eginez debutatu du Josu I.

Iñauterietako pertsonaiei eta Ortzegun Gizenari adio

Erratzuko Dama, Arizkongo hartza, Elizondoko karroza apainduak... hainbat pertsonaiek urteroko bista egin ondoren, bukatu dira aurtengoz

iñauteriak

Oilar dantzak, Orakunde, Egun ttuntun, Ortzegun Gizen eguna ezagutzeko ize-nak dira. Garai batean hiru ortzegunez egiten

ziren, bata Gizakunde -mutikoak joaten ziren eskean-, Emakunde -neskak- eta Orakunde -denak. Gaur egun denak elkarrekin, sosa biltzen dute.

ttipi-flash

Zenbait menditan

egindako lanetarako dirulaguntza eman dio Nafarroako Gobernuak Balleko Etxeari. Urri-tzate inguruan egindako lanengatik 1.773.006 pezeta eta bertze eremutan egindakoengatik 4.478.267 pezeta jasotu du Udalak.

Bearitzunen auzolana

Eskolako bidea garbitu eta konpondu zuten otsailaren 17an.

Baztango mendigoizaleak

Igande honetan Belaguara joateko 23a baino lehen eman behar da ize-na Mendi ostatuan.

Itoiz geldiarazi

lemapean igandean Iruñean egin zen manifestaziora autobusa atera zen Elizondotik, Baztan eta Malerreka jendea bilduz.



JATETXEA

© 580297

Pedro Axular

ELIZONDO

Santxotena

SASKAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



Era guzietako instalazioak:

Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

DANBORIENT

OKINDEGIA

GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN

CIABAR OBRAS Y CONSTRUCCIONES, S.L.

Santiago 55 - behea

Bulegoa: Tel. eta Faxe (948) 58 04 52

31700 ELIZONDO

Oronoz-Mugairin nabe industrialen eraikuntza eta salmenta

- ☐ 100 m² tik 500 m² bitarte
- ☐ Solairuartekoa egiteko aukerarekin
- ☐ Lehen mailako nabeak
- ☐ Kokaleku ezin hobea, errepide nagusiaren ondoan

ttipi-ttapa

6.200 harpidedun
21.000 irakurle

ttipi-ttapa
Zure klijenteek
ikusiko dute
zure publizitateak

Urdazubi

Iñauteri astelehenean irudiak hartzera etorri ziren ETBkoak

Herriko gazteak, bertzalde, hiru taldetan banatuak auzoz auzo ibili ziren eskean

ALIZIA OLAIZOLA

Berriki izan ditugu Euskal Telebistakoak Urdazubin. Otsailaren 19an etorri ziren iñauteriak filmatzera. Iñauteriei eskolako haurrek eman zieten hasiera, desfileak mozturorik eginez, ikuskizun gehiagoren artean. Bazkalondoren besta-kin segitu zuten.

Igandean, gazteak hasi ziren eskean Dantxarinean, mozturoritik Modesto akordeolariaren konpainian.

Astelehenean eskean ibili ziren gazteko adrilak Leorlas, Alkerdi eta Larrainta auzoetan. ETBkoak filmatzen



Otsailaren 4ean Atsulai dantza taldea Ainhoako iñauterietan dantzak eskaini zituen, ikuskizun gehiagorekin batera

izan ziren egun honetan eta klasen klaseko

mozturor aunitz ikusteko aukera izan zuten.

Arratsean segitu zuten mozturorodunen desfi-

learekin eta gainerakoekin. Egun honetako ikuskizun gehienak filmatzen izan dira, lehendabiziko aldia izanez eta ilusio haundia egin gaitu herritar guzietan.

Asteartean, Iribere, Landibar, Tejeria eta herriko ibilbidea egin zen. Denetara hiru talde ibili dira eskean, talde bakoitza bere akordeolariarekin. Otorduak eta dantzaldiak Modestorekin Indianoa-baitan, Patxi eta Milagrosen eta zerbitzariak ongi errebituz. Iñauterietan egunero 100 bat gazte jasatea ez da guti.

Zugarramurdi

Pala txapelketako finalak otsailaren 3an jokatu ziren

Akelarre elkarteak esku pilota ere bultzatu nahi du

MARGARI ETA KORO

Sekulako besta izan zen otsailaren 3an Azketa frontonean ospatu zena. Egun hortan jokatu ziren pala txapelketako bi finalak, gomazkoa eta larrazkoa. Lehenbizikoa Juan Miguel eta Francisco txapeldun suertatu ziren, Gonzalo eta Pelloren aurka (40-32); bigarrenen berri, Joxemari eta Sebastian izan ziren irabazleak Juan Miguel eta Franciscoren aur-



Paleta txapelketan sarituak suertatu ziren pilotariak

ka (50-42). Beraz, azken hauek bi finaletan

sartu ziren. Bertze biren berezi banatu zi-

ren: Joxemari Indabururi adin haundieneko

jokalaria bezala eta Jose Luis Juriore jokalaria dotoreena bezala.

Txapelketa Akelarre elkarteak antolatua zen, zenbait erakunde, merkatal etxe eta enpresen laguntzarekin.

ESKU PILOTA

Honelakoak antolatetik aparte Akelarre elkarteak eskuzko pilota ere bultzatu nahi du; horretarako pilotari ohia den Sebastian Oizartabalek larunbatero Urdazubi eta Zugarramurdiko 20 bat haur entrenatzen ditu.

Sara

Adinekoak bazkari baten inguruan bildu ziren otsailaren 10ean

Herriko Etxeak, bertzalde, hitzarmena sinatu du Eusko Ikaskuntza erakundearekin

MIXEL ETA JACQUELINE

Herriko Etxeak gomiturik 130 bat adineko bildu ziren otsailaren 10ean Omordia-ko jangelan bazkari baten inguruan. Erran gabe doa egun goxo bat pasatu zutela elgarrekin. Usaian bezala Koxe Moxoinbordakoa bere akordeoiarekin eta Patziku Narbarte kristitinekin hor ziren giroaren pizteko.

Herriko Etxearen hitzarmena Eusko Ikaskuntzarekin

Lehen aldikotz, Ipar Euskal Herriko Herriko Etxe batek hitzarmena izenpetu du Eusko Ikaskuntza erakundearekin. Ekitaldia, otsailaren 6an iragan zen



Adinekoen artean oturuntzek badaukate arrakasta

Sarako Herriko Etxean eta Jean Aniotzbehare auzapeza Jean Fagoaga Eusko Ikaskuntzako Iparraldeko lehendakariarekin, Imanol

Olaizola eta Jose Maria Velez de Mendizabalekin elkartu zen. Eusko Ikaskuntzak 250 liburu eskaini dizkio Sarako Herriko Etxeari.

Bertso saioa

Aro txarra izanik ere, bertsozaleak hor ziren otsailaren 11n iragan den ohizko saioaren kari. Jende guti bil-

tzen bada ere saio hunek bere garrantzia badauka eta ohizko entzuleak batetik bertzerat aurkitzen ditugu. Ondorioz, antolatzailerak biziki atxikiak dira egun horri eta hauen xedea litaik he-rritarrek parte haundia hartzea.

Lauga gelan ez ohizko kontzertua

Martxoaren 23an, Baionan Lauga gelan Negu Gorriak taldea ariko da. Eskualde huntan txartelak salgai dira Herriko Etxeko edantegian.

Kontzertu hau Piztu elkarte abertzaleak antolatzen du. Hor agertuko dira ere Deabruak Teilatuetan, Anje Duhalde eta Terri O'Neil irlandarra.



Ezkontza Erreportaiak, Argazkiak Estudioan eta Etxez etxe, Karnet Argazkiak momentuan Argazki Kamara aukera handia: Nikon, Pentax, Goko, Kodak, Fuji, QSS Pelikulak; 1/8, kolore eta diapositibak: QSS, Konica, Agfa, Fuji, Ilford... Argazki Erreproduktzioak, Albulak, fotokopiak, Enkuadernazioak, Agiriaren Plastifikazioa, Fax Zerbitzua, Markoak eta Moldurak

NAGUSIA 4 - TEL-FAX: 45 08 25 31740 DONEZTEBE

SANTIAGO 40 - TEL: 58 01 55 31700 ELIZONDO

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxe: 580804 - ELIZONDO



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

DONEZTEBE AKADEMIA

Klaseak ematen dira

- OHO, FP, BUP, REM (maila guztiak)
- Mekanografia

Badakizu honen beharra duzula

Parrokia 10, 3. • 450326
DONEZTEBE

EZKONTZAK

Juan Antonio Telletxea Etxebeste eta **Juana M^a Manterola Ado**, Bera-koak, 1995ko abenduaren 9an.

JAIO TZAK

Javier Apeztegia Iturria, Doneztebekoa, otsailaren 2an.

Unai Antton Astiz Izeta, Elizondokoa, otsailaren 5ean.

Lorea Goienetxe Lizartza, Arizkungoa, otsailaren 3an.

Adur Etxezarreta Rezola, Aresokoa, urtarrilaren 27an.

Maite Aranbillet Galtzagorri, Sunbillakoa, otsailaren 10ean.

Unai Telletxea Iraola, Igantzikoa, otsailaren 5ean.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**
3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**
polit bat oparitzen diegu. Amendako
"Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA
Eusko Lege Alorri Kutxa

HERIOTZAK

Gerónimo Plaza Lasset, Oieregikoa, otsailaren 4an, 79 urte.

Victoriano Jauregi Magirena, Amaiurkoa, urtarrilaren 31n, 82 urte.

Miguel Salaburu Etxenike, Arizkungoa, otsailaren 4an, 75 urte.

Pedro Ariztegi Elgorriaga, Elizondon, otsailaren 5ean, 85 urte.

Angela Saralegi Bidabe, Elizondon, otsailaren 7an, 86 urte.

Maria Perez Munarriz, Elizondon, otsailaren 8an, 85 urte.

Gerardo Telletxea Zoziaia, Lesakakoa, otsailaren 7an, 58 urte.

Joset Goyetche, Sarakoa, otsailaren 9an, 58 urte.

Justa Indakoetxea Erro, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 12an, 91 urte.

Bautista Zoziaia, Sunbillakoa, otsailaren 14an, 83 urte.

MANIFESTALDIA

Presoak Euskal Herrira

Martxoak 25, igandea

Arratsaldeko 7etan

Lesakako Plazan

Deialdia: Baztan-Malerreka-Bortzirietako
HB, AABB, Senideak, Jarrai, LAB

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak	112/088
Osasun Zentruak	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	450475
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak:	
Iberdrola	450335 / 450336

Haize boladek arboletan sortutako kalteak arintzeko neurriak hartzea eskatu da

Foresna-Zurgaiak bultzatuko ditu dauden eskaerak Nafarroako Gobernuaren aitzinean

Otsaila hasieran izandako haize bolada gogorrek kalte ugari sortu ditu mendi eta oihanetan. Hondamen guzi hoiei aterabideren bat emateko, Foresna-Zurgaiak elkarteklehen baitlehen hainbat iniziatiba hartzea eskatu dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Departamenduari.

40.000m³ ARBOL LURREAN

Behin behineko ikustaldi baten arabera, berrogei mila metro kubiko arbol lurretan dira, Nafarroan urte batean mozten diren arbol guzien %20a. Horren aitzineran premia haundikoa da zenbait neurri hartzea behar. Lurrean dauden zenbait arbol klasek, adibidez, gaixotasunak sortzen ahal dituzte ondoan zutik daudenetan. Bestalde, oihanberrietan sortutako kalteak moldatzeko dirulaguntzak ematea ere es-



Otsaila hasierako haize boladek, Nafarroan urte batean mozten diren arbol guzien %20a bota ditu lurrera, 40.000m³ inguru.

katuko da, eta azkenik, lurrean daudenak probetxatzea komenigarria da. Informazio

gehiago nahi dutenek Foresna Zurgaiako 151501 telefonora dei dezakete.



Herriko Etxeetan euskaraz

Baztan, Bortzirriak, Bertizarana eta Male-rrekan bizi zarenok, zuen TTIPI-TTAPAREKIN batera 'Udaletxean ere euskara' dioen al-dizkaritxoa hartu izanen duzue. Bertako Euskara Zerbitzuek, Nafarroako bertze batzuekin batera, udaletan euskararen erabilpena indartzeko kanpainaren berri ematen da hoietan. Kontutan hartu behar da udal langileak euskara ikasten aritu direla azken urteotan, eta herri guzi hauetako udal langileen %86a beren zerbitzua euskaraz emateko gai dela. Horregatik, «Herriko Etxeetan eta gainerako erakundeetan euskara erabiltzeko dugun eskubidea jakinaraztea» da kanpaina honen helburua.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ttipi-ttapa Gida Komertziala 96

Badakizu zure
anuntzioa momenturo
ikusten duela norbaitek!





Azken bi urtetan bezalaxe, Nafarroako lau txapeletatik hiru Lesakako Beti Gazte taldeak bururatu ditu, nahiz eta Euskadiko txapelketarako prestatzen egon Argazkia: Karnele Tolosa

AITOR AROZENA

Akabatu berria den Nafarroako sokatira txapelketan Lesakako Beti Gazte sokatira taldeak lan bikaina burutu du eta jokoan zeuden lau txapeletatik 3 eskuratu ditu.

Lesakarrak orain bortz urte hasi ziren sokatira txapelketetan parte hartzen, orduko sub-20 txapelketan, hain zuzen. Halere, tiralari beteroenak onartzen dutenez, "duela lau urte hasi ginen

fundamentuarekin entrenatzen". Fundamentu horren emaitzak laister hasi ziren ailegatzeko eta azken hiru denboraldietan Nafarroako hiruna txapel eskuratu dute eta joan den urtean hirugarren postua lortu zuten 600 kiloko Euskadiko txapelketan. Joxe Angel Zubiria entrenatzaileak dioenez, "tiralari batzuk joan eta bertzeak etorri dira, baina basea mantendu da. Hobekuntza haundia na-

baritu da". Astean lau entrenamendu egiten dituzte, hiru fisikoak eta bertzea sokan. Aurten kontrario gogorra izan dute Aresoko taldean. Zubiriaren ustez, "esperientzia hartzen joan dira urte hauetan. Nabari da hagitz entrenatzaile ona dutela eta berak dakiena erakutsi die tiralariari".

Dagoeneko Euskal Herriko txapelketan hasiak dira. Hemen ere kategoria guztie-

BETI GA



Soka xehetu b

NAFARROAKO SOKA

PISUA	BETI GAZTE
680 kilo	1.
640 kilo	3.
600 kilo	1.
560 kilo	1.

tan parte hartzeko asmoa badute ere, aukerik haundiena pisu titiketan dute entrenatzailearen ustez. "560 eta 600 kilotan hiru lehenbizikotan gelditzeko esperantza dugu. Ea txapela lortzen dugun" ■

Banan Bana

Tiralaria	Pisua*	Adina
Agustin Zubieta	73-62	23
Igor Telletxea	77-67	21
Imanol Telletxea	74-68	27
Jesus Mari Telletxea	85-80	28
Carmelo Mitxelena	92-84	21
Jose Angel Mitxelena	84-74	23
Beñardo Iantzi	87-81	25
Iñaki Igoa	83-73	22
Alejandro Sarobe	67-62	20
Mikel Almandoz	82-73	20
Gerardo Telletxea	87-84	26
Gerardo Telletxea	67-61	21

Aurtengo tiraldietan parte hartu ez badute ere, fitxa federatua dute Carlos Senper, Paskual Taberna eta Joxe Angel Zubiriak.

* Denboraldi hasieratik bukaerara pisua jeisten dute tiralariak konpetizio egitarauari egokitzeko.

«Kirola gustatu eta sakrifizio haundiak egiteko prest dagoen jendea daukagu»

■ Zein helbururekin hasi zenuten denboraldia eta zein neurritan bete dira?

□ Aurtengo asmoa Euskadiko txapelketarako ongi paratzea izan da, horretarako oinarria hartzea. Halere, hiru txapel irabazi ditugu eta gustora egoteko moduko emaitza da.

■ Tiralari guztiak lesakarrak dira?

□ Etxalartar bat ezik, tiralari guztiak herrikoak dira.

■ Pisu guztietan tal-



Joxe Angel ZUBIRIA

Entrenatzailea

dea aurkezteak esfortzu berezia suposatzen du?

□ Bai, zenbaitzuk ka-

tegoria guztietan aritu behar izan dute eta.

■ Nola definituko zenuke zure taldea?

□ Tiralari fuerteak ditugu. Kirola aunitz gus-tatzen zaie eta horretan aritzeko sakrifizio haundiak egiteko prest dagoen jendea da.

■ Zer nota jartzen diozu egindako lanari?

□ 10 bat, dudik gabe. Ikusi behar da zenbaitetan jende inportantea lesionatua izan du-gula eta, halere, beti hor egon gara.

ZTE ARES

ean aritu dira

TXAPELKETA - 96

ARES

FINALA

3.	Leitza (I-7)
1.	Bidaurreta (I-28)
2.	Lesaka (II-4)
2.	Leitza (II-10)

A.A.

Aresoko sokatira taldea ere ederki aritu da denboraldi honetan, azken urteotako progresioari eutsiz. 640 kiloko txapela bururatzeaz gain, Beti Gazteri aurre egin dion



Aresoko taldea urtetik urtera hobetzen ari dela argi dago eta horren froga da aurtengo 640 kiloko kategorian irabazitako txapela

Argazkia: Karmele Tolosa

talde bakarra da. Podioaren leku guztiak probatu ditu orain hiru urte sortu zen sokatira taldeak. Geroztik, hainbat entrenamendu egin dituzte eta hobekuntza nabari da, Josu Etxezarreta entrenatzailearen esanetan: "Asmo horretan ari gaituk, gero eta maila hobea erakutsi nahian. Astean hiru entrenamendu egiten diagu, bi soka eta bat fisikoa eta aparte, egunero korrika saio bat". Bera ere

sokatiralaria da azken 17 urtetan Nuarbeko taldean. Belar gaineen aritzen dira han, ordea, eta zaila da hango esperientzia goma gainera ekartzea. "Oso ezberdinak dituk, lur gaineen gorputzeko muskulo guzietan egiten da lana eta goman hantekin egiten da indarra".

Beti Gazte izan dute kontrario nagusia eta lesakarren gauzik onena esperientzia dela uste du Etxezarretak: "Urte

mordoxka daramazkite elkarrekin, mutilak aldatu dituzte baina gehienak hasieratik hor daude. Teknika ona daukate eta zaila da tiraldia irabazteko zuloa harrapatzea".

Nafarroako txapelketa bukatuta, Euskadiko txapelketa parte hartzen hasiak dira aresoarrak. Larunbat honetan egin dute lehen saioa eta hemen ere kategoria guztietan parte hartzeko intentzioa dute. Animo, bada ■

«Pisu haundietan txapel bat irabazi nahi genian eta 640koa eskuratu diagu»

■ Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?

□ Beti Gazte pisu txikiengan oso ongi ibiltzen denez, pisu haundietako txapel bat, 680ko edo 640koa irabazi nahi genian. 640koa behintzat lortu diagu eta gustura gaude. Iaz azpitxapeldun izan ginen bi kategoriatan eta aurtengo lehen txapela eskuratu dugu.

■ Tiralari guztiak aresoarrak dira?

□ Gehienak bai. Lei-



Josu ETXEZARRETA

Entrenatzailea

■ Pisu guztietan taldeak aurkezteak esfortzu berezia supo-

satzen du?

□ 13-14 lagun dizkiagu eta batzuk pisu guztietan tiratu behar izaten dute. Horiek erregimen gogorra egin behar izaten dute.

■ Nola definituko zenuke zure taldea?

□ Dena lantzen diagu, sokatirak hori behar baitu: teknika eta indarra, bat eginda. Halere, teknika gehiago dugula esanen nuke.

■ Zer notajartzen diotzu egindako lanari?

□ Zazpi bat.

Banan Bana

Tiralaria	Pisua*	Adina
Joxe Otermin	108-90	23
Javier Otermin	73-66	24
Miguel Angel Sukuntza	96-82	25
Jesus Artola	83-73	29
Txomin Artola	68-64	27
Mikel Arraiago	86-78	18
Juan Mari Izeta	84-78	25
Mikel Baraibar	67-59	24
Iñaki Nazabal	66-63	21
Iñigo Saenz	63-70	30
Xabier Arraras	82-76	18
Martin Onsalo	100-90	30
Argoitz Hernandorena	80-76	18
Txomin Belauntzaran	87-82	18
Patxi Baraibar	79-70	22

Botilleroa: Javier Perurena

* Denboraldi hasieratik bukaerara pisua jeisten dute tiralariak konpetizio egitarauari egokitzeko.

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

DONEZTEBE

Otsailaren 25ean

Ekaitza Tabernan
Javier Sun arratseko
8,30etan.

Martxoaren 3an

Ekaitza Tabernan FAB
taldea arratseko
8,30etan.

ELIZONDO

Otsailaren 23an

Kasino Ostatuan
Skunk taldea gaueko
10,30etan.

GOIZUETA

Martxoaren 2an

Rock Kontzertua
Tifanixon.

EMAKUME-EGUNA

BERA

Martxoaren 7tik

10era Uxua
Emakume taldeak an-
tolatuta, egun guzitan
erakusketa Kultur
Etxean. Martxoaren
7an 'autoestima'ri bu-
tuzko hitzaldia eta on-
dotik antzerkia.
Martxoaren 8an zine-
emanaldia 'Armas de
mujer', eta ondotik
afaria.

LEITZA

Martxoaren 8tik

10era Tianttoka
Emakume taldeak an-
tolatuta. Martxoaren
8an 'Autoestima' ikas-
laroa eta afaria.
Martxoaren 9 eta
10ean argazki erakus-
keta eta partxis lehia-
keta. Martxoaren
10ean 'Shirley
Valentine' pelikularen
emanaldia.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Basurdea

Osagaiak 10 lagunendako

• 3 k. basurde • 3 tipul • 3 po-
rru • 6 azenario • 3 baratxuri •
litro erdi olio • litro erdi ardo
xuri • baso bat ardo gorri • 2
kopa koñak •

Prestatzeko modua

Bezperatik, basurdea ura, ozpi-
na eta limoi urtean jarriko dugu
ongi garbitzeko. Gero, presta-

tzen hasterakoan, on-
tzi batean olio bero-
tzen jarriko dugu. Ba-
razki guziak txikitu eta
ontzira bota basurde-
arekin batera. Haragia
ongi gorritu denean,
ardoak, koñaka eta ura botako
diogu gainetik estali arte.
Utzi egiten. Ordu pare bat be-
deren beharko ditu egiteko.
Bitarte horretan ur gehiago be-
har badu, erantsi.



Itziar
SAGASTIBELTZA

Sagasti
Jatexekoa
•LEITZA•

Nahi izanez gero, patatak eta
txanpinoi batzuk ere bota dai-
tezke erabat egin baino lehen.

On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoak):
7.300 pzta.
• **Zerri gizena** (95-100): 170
pzta./kilo
• **Zerramak**: 120-125 pz-
ta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
• **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal
Extra 580
1.koa 560
2.koa 540

• **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal
Extra 590
1.koa 560
2.koa 530
Oharra: Prezio hauek 300-340
Kg. kanalean dauzkaten idixko
eta 200-250 kg. dituzten urru-
xentzako.
• **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 22.000 eta
idixkoak 27.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 30.000 eta
idixkoak 40.000 Pzta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 380 Pzta./
Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470
Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoa** 950.
• **Udareondoa** 950 pzta.
• **Gereziondoa** 1.050 pzta.
• **Aranondoa** 1.050 pzta.
• **Muxika** 880 pzta.
• **Urritza** 880 pzta



❖ LANDAREAK ❖

• **Porruak** zientoa 400.
• **Tipulak** zientoa 800.



ZUBIRIA MINDEGIAK

- **Etxeak apaintzeko landareak**
- **Baso landareak**
- **Bertako frutondoak**

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK


Telefono Mugikorrak

Telefono hauek martxan jarri direnetik izugarrizko publizidade bonbardeoa ari dugu jasaten egunero. Zer diren, nola funtzionatzen duten eta zenbat balio duten adierazten saiatuko gara.

MoviLine izan zen gure merkatuko lehenengo sistema. Teknologi aldetik sistema analogikoa erabiltzen du, oraindik gehien erabiltzen den sistema.

Sistema honekin, telefono seinalea Estatu Espainolera mugatzen da, eta funtsean, probintzia mugikor baten modura funtzionatzen du; hau da, aurretik zenbaki berezia markatu behar da, 908 edo 989. Etxeko telefonotik bezala, deiak edozein tokiara egin daitezke, estatu barnera eta kanpora.

Honelako telefono linea bat edukitzeak prezio diferentek ditu. Aparaturik sinpleenak 10.000 Ptatik. aurrera aurkituko ditugu. Zenbat eta prestazio gehiago, orduan eta garestiago. Telefono linearen konexioak 11.600 Pta. balio du eta behin bakarrik ordaintzen da. Kontsumoari dagokionez, kontratu diferentek



daude, eta hauen arabera, kuota finko bat gehi egin diren deiak ordaintzen da. Orduaren arabera, hiru kuota daude. Gaueko 10etatik aitzinera eta asteburuetan, bertze probintzietara deitzea, etxeko telefonotik baino merkeagoa da.

MoviStar sartu berria dugu merkatuan. Bi enpresa ditugu sistema hau eskeintzen dutenak: Telefonica eta Airtel. Teknologi aurreratuagoa du, digitala, eta seinalearen kobertura nazioarte mailakoa da. Halere, badago arazo bat; bere kobertura Telefonica eta Airtelek dituzten nazioarteko komeniotara mugatua

dago, eta ez mundu osora. Telefono aparatuak funtzionatzeko txartel bat behar du, pertsonala. Txartel honetan txartel-jabearen datu guztiak daude, eta bere telefonotik ez ezik, bere enpresa, lagun eta beste edozein telefonotan ere erabiltzen ahal da aipatu txartela. Abantaila bat da hori. Telefono honeri, ordenagailu terminala, faxa etabar konektatzen ahal zaio.

GARANTIA

Aparailuok pilak erabiltzen dituzte, eta kutsakorrak direnez, ezin dira edozein tokiara bora. Birtziklatzeko, erosi diren dendara itzultzea komeni da.



BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

MARKA GUZITAKO TELEFONOAK (Motorola, Sony,...)

MoviLine 9.995 Ptatik. aurrera
MoviStar 25.000 Ptatik. aurrera

CANAL

Instalatzailer Baimendua

Televés

Instalatzailer Ofiziala



AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEA

DONEZTEBE

► **Otsailaren 24-25ean** zine aretoa 'Malicia'.

► **Martxoaren 2-3an** zine aretoa 'Nacidos para matar'.

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► **Otsailaren 25ean** Baztango Mendigoi-zaleak Arkatsuriko lepora joanen dira.

► **Martxoaren 3an** Baztango Mendigoi-zaleak Iratira elurretara joanen dira.

LEITZA

► **Otsailaren 25an** Aurrera elkarteak antolatua, Leiza-Aizan-Sasain-Usategieta-Goizueta. Izen ematea otsailaren 22a baino lehen Astiz eta Maimur liburudendetan.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Otsailaren 19tik 25era** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leiza eta Goizueta.

► **Otsailaren 26tik martxoaren 3ra** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Martxoaren 4tik 10era** Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

BERA. 95m²ko pisua salgai. Sukalde ekipatua, kafeakzioa eta nahi baldin bada, garagea. ☎ 630686. Arratsaldetan.

BERA. Legia karrikaren 15.ean, 4.D pisua salgai. ☎ 631232 edo (943) 397388.

ELIZONDO. 250m²ko pisua salgai Santiago karrikako 3. solairu batean. Prezio onean. ☎ 234830 Jose M^a.

Baztan-Malerreka aldean borda bat erosiko nuke, ura, argia eta terreno apur batekin. ☎ 943-835636 (gazez).

ELIZONDO. Pisua alokatuko nuke moblerik gabe. Santiago karrikan. Bista onak. 35.000 pezeta hila-betean. ☎ 451518.

MALERREKA. Borda bat erosiko nuke bere terrenoarekin. ☎ 451774.

LESACA. Pisu bat alokatuko nuke. Hobe moblez-tatua bada, pertsona batentzat. ☎ 943-456644 (eguerditan).

BERA. Pisua salgai. 80 m² plantan eta 40m² ganbaran. Erreformatu behar da. ☎ 630931 edo 943-624540.

DENETARIK

DONEZTEBE. Goxoki den-da alokairuan emanen nuke. 20.000 pezeta hilabe-tean. ☎ 451518.

KORTES. Zaharberitutako etxea alokatzen da, uda al-derako egokia. ☎ 630322 (Luzia).

Vaporeta salgai. ☎ 450415.

Kartelak, buzoiratzeko pa-perak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten di-tugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

LESACA. 23 m²ko bajera salgai, Bittiria 37an. ☎ 637938 (Inma).

Bi emakumek terrenotxo bat erosiko lukete Zubietatik ahalik eta hurbilena. ☎ 451555 (Amaia eta Esther).

TTIPI-TTAPAREN lehendabizi-ko 23 aleak eskuratu nahi nituzke. ☎ 635182 (Patxiku, eguerditan).

Istripu baten lekukoa behar da lehenbailehen. Istri-pua joan den urteko azaro-aren 8an gertatu zen Bera-ko Renault-aren parean, arratsaldeko 4,45etan. NA-3827-AL matrikuladun DAF kamioneta Ford Orion bat aitzintzen hasi eta ezker al-deko aleta kolpatu zion. ☎ 637832 (Txaro).

Kulunkaulkia salgai. ☎ 631183.

330 litroko **esne tankea** eta 16 toneladako kupoa sal-gai. ☎ 631038.

IBILGAILUAK

Konpetizioko **motoa** sal-gai, Kawasaki KX-80 mar-kakoa. Hagitz egoera one-an. ☎ 635219.

Moto bat Cota 309 mar-kakoa salgai. ☎ 630686 (arratsaldetan).



SAMPI ARAGON
 Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak **erosiko** nituzke. **Eskura ordaintzen da.**
 ☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Peugeot 309 GTI NA-AH salgai. ☎ 580762 (eguerdi-tan).

AZIENDAK

Bi urteko aharia salgai, mutur gorria, adarkeria. ☎ 450353.

LANA

Emakume batek lan egi-nen luke edozein gauzetan Lesakan. Esperientziagatik, nahiago luke haurrak edo adinekoak zaintzen. ☎ 627541 Belen.

AGURRAK

Eratsungo Miguel Javier Telletxeari zorionak zure urtebetetzeagatik. Ondopa-sa eguna, asko asko *mai-te* zaituen neska baten par-tez.

Maitemindutako mutil ho-rrentzat: mesedez idatz die-zadala eskutitz bat bereize-na eta helbidea ipiniz. Donostiako zuk dakizun neska baten partez. Muxu bat. Naiara.

Igantziako Astra AF urdi-narentzat: bortz hilabete Baztanera etorri gabe. Politagoak al dira Donez-teben?

Eratsungo Lourdes Baleztenari: zorionak bere alaben partetik.

Eratsungo Iñaki Eskudero-ri zorionak bere lagun-en par-tetik. Maite Telletxea eta Nagore Eskudero.

Berako institutuko Jone Ordoki eta Izaskun Obesori "tia buena" batzuk zarete.

Lesakako Xabi Iribarren-eri: oso ona zaudela. Atera nahi duzu nerekin? Espero du-zun neska baten partez. I.S.

Mugairiko Mikel Brañari, oso ona dagoela, neska ba-ten partez.

24 urteko mutil batek bes-te mutil bat bilatu nahi du harremanetarako. Baztan.

Leitzako Aroa Huarteri: Oso guapa zara. Aimar S.



AROZ-BERRI

N-121-B karretera • IRURITA • ☎ 581021



SAME Traktoreak

SILVER modelo berriak

*Diseinu bakarra,
segurtasun osoa,
Agrosbift ekin eta frenoak
4 gurpiletan.*

SAME Traktoreak 45 C.V. 2.250.000 (BEZ barne) pezetatik aurrera

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala Betatik aitzinerat
Larunbata eta besta egunetan zabalik.

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

ZURETZAT ERRAZAGO IZATEKO, PEDRO GARMENDIAN IAT-ITVa HASIERATIK AKABERA BITARTE MOLDATUKO DIZUGU.

■ IAT-ITVaren **AURRE DIAGNOSIA** eginen dizugu estazio ofizialean erabiltzen dituzten makina berdinekin.

■ IAT-ITVa pasatu ahal izateko zerbait konpondu behar dela ikusi badugu, AUREKONTUA DOHAINIK eginen dizugu.

■ Aldatu behar diren pieza guzietan **%25eko DESKONTUA** eskaintzen dizugu.

Gu arduratuko gara:

- Zure etxetik autoa biltzeaz
- Tasak ordaintzeaz
- IAT-ITV ofiziala pasatzeaz
- Autoa berriro etxera bueltatzeaz

**ETA NAHI BADUZU IAT-ITV OFIZIALA
EGUN BATEZ PASATUKO DIZUGU**

PEDRO GARMENDIA, S.A.
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**


TALLERES SANTESTEBAN
Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

SEMPER HNOS., S.L.
Irun-Iruñea Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**



RENAULT

EZ GALDU MINUTU BAT ERE PEDRO GARMENDIAN GUZIAZ ARDURATUKO GARA.



Zer eskaini ahal dizu

Gida honek?

DEN-DENA

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, GIDA hone-tan aurkituko dituzu inguruotako profesional, ko-mertzio, lantegi eta zerbitzu guzi-guziak. Informa-zio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua, eta guzi hori, etxetik mugitu gabe.

Gida 96

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harre-manetan eta milaka pertsonak irakurriko dute zure mezua.

ttipi-ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA
Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik deitzeko 19-34-48- **631188**

Laguntza Eskaria

P.A.C.



**Tramitatu
itzazu
gure
bulegoetan**



Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin